

**Ainize Madariaga** Luhuso

**D**esagertzeko beldurra daukat. Kendu pertsonari hizkuntza, kendu pertsonari lurra... Zu ere hustu zintuzten amona», erran dio Aurora Morak Muiska komunitate indigenako amona Nayeliri. Aurorari hilen erresumatik agertu zaio amona, justu gehien behar duen momentuan, erabaki ezin zailagoa hartu behar duen unean: ama hilberria ehorz-teko Kolonbia sorterrira itzuli edo ez. Txibtxa hizkuntza mintzo zuen amatxik, eta, herria utziz geroztik, sekula gehiago ez zen itzuli. Garai hauetako Euskal Herriko karrika hutsetan, adineko jendea besapean laguntzen dutenak, gurpil aulkia pusatzen dituztenak, horietako edozeinen istorioa izan daiteke, bete-betean, *Atzerrian lurra garratz* antzerki piezak kontatzen duena.

Artedrama eta Huts Teatroa konpainiek ia hilabetea pasatu dute Luhusoko (Lapurdi) Harri Xuri kultur gelan, otsailaren 5ean obra estreinatzekotan. Tamalez, osagarri krisiak gela hutsa mantendu du, eta haien bigarren data behar zuenak estreinaldiaren rola betekodu: Oñatin (Gipuzkoa), hilaren 12an. 19an izango da Andoain (Gipuzkoa), 20an Markina-Xemeinen (Bizkaia) eta 21ean Errenterian (Gipuzkoa). Hilaren 26tik 28ra, berriz, Donostiako Gaztzenako oholta hartuko du obrak.

Euskal Herriko lur garratzetik Aurora Mora atzerriarrak bere jatorrizko herriatik alde egin behar izan zuen, lau urte badirela: «Esku hutsik nago hemen, han eskuak hustu zizkidatelako». Amari bota dizkio hitzok, hark Aurorari ez baitio barkatzen sorterrira itzuli nahi ez izatea.

Amak ez ezik, ahizpak ere eskatzen dio itzul dadin, utzi duen hutsunea mingarregia baitzaie.

#### **Aurora ez baita Laura**

Aurora fikziozko pertsonaia da, baina ez dira hutsetik abiatu: Laura Penados antzezleak Ander Lipus antzerkilariari kontatu zionak piztu zuen obraren lehen pindarra: «Laura ezagutu nuenean ikusi nuen bazegoela hunkitzen ninduen istorio bat. Eta nik edo guk kontatu ordez, berak kontatzen zela: bere egoera, Kolonbiakoa, musika indigenak, hango biolentzia eta berak hemen nola bizi duen atzerriar izate hori. Hastapenean, nire asmoa zen bera zuzentzea eta laguntzea, ikusten bainuen artista gisa he-



**Ama hilberria agertu zaio Aurora Morari, bizian aitzina egiten ezin utziz, kolonialismoaren ondorioz.** AINHOA RESANO

‘Atzerrian lurra garratz’ obra, Luhuson estreinatu beharra zutena, Oñatin estreinatuko dute otsailaren 12an. Artedrama eta Huts konpainiek kolonialismoa hartu dute ardatz, Euskal Herrian etorkin izandako kolonbiarraren bizipenetatik abiatuz.

## Deserriaren hutsa errotzeak nola betea

men ez zuela lekurik. Orduan, izan da berari leku bat ematea bezala, eta norberak ikastea zer daukaten eurek esateko». Penados bera eta Lipus ari dira oholta gainean, eta Amancay Gaztañaga arduratu da obra zuzentzeaz.

Taula gain hutsa, beraz, Laura Penadosen bizipenez bete dute,

baina Aurora Morak kontatzen ditu. Aurora pertsonaiak Lauraren bizitza errearen antzeppen partziala egiten du: «Hasieran gogorra izan zen, kostatzen zitzaidan bien banaketa egitea. Baina prozesua gainditu nuen: ulertzea zati bat nire bizitza dela, Euskal Herrian bizi den koloniar

emakumearena. Baina beste parte nirea ez den fikzioa da. Antzezle gisa garrantzitsua da begirada objektiboa izatea. Antzezle moduan kontatu behar dut. Ezaugarriak ditut antzezoak, baina ez da nire istorio pertsonala».

Hala, bizipen pertsonalak uz-

tartu zaizkio esperimantu profesionalari. Pertsonaia bera, Penados bezala, artista da, eta, preseski, ama zendu zaio Kolonbian, Euskal Herrian sekula ukan duen paradarik hoberenaren bezperan: Tabakalera instalazioa aurkeztea. Aurorak luma koloretsuak jantzen baditu, performancearen eremuan sartzen da. Kenduz gero, berriz Aurora bilakatzen da,



**Hemengoa izateko, euskara funtsezkoa da. Euskarak eman didan gauzarik ederrena da ‘Atzerrian lurra garratz’»**

**Laura Penados**  
Antzezlea

**«Guk kontatu ordez, berak kontatzen zela: bere egoera, Kolonbiakoa... nola bizi duen atzerriar izate hori»**

**Ander Lipus**  
Antzezlea

**«Migrante izan den zein euskaldunek dauka hitza fikzio bat kontatzeko Euskal Herrian? Ez dago»**

**Amancay Gaztañaga**  
Antzerki zuzendaria

duintasunez husturik dagoen gelan. Plastikozko kutxak eta metalzko somierrak ditu dekoratuko konplize huts, etorkina izan denak hala izateari utzi nahi dion prozesuaren salatzaile. Gela ilunari hezetasuna dario.

Hastapeneko proiektuak zuri-beltzetik tiratzen bazuen ere, aitzinatu ahala, bi urteko prozesuan, koloreak bilduz joan da. Euskal Herriko neguak baino, Kolonbiako beroak du hitza hartu. Lipusek maitatu du obraren bilakaera hori: «Kolonbiako kolore hori. Nik agian kontatuko nuke Euskal Herriko gela tragiko bateatik, baina Amancay eman dion ikuspuntu hori, Kolonbiako kolore horiek, lore horiek asko gustatu zaizkit. Edo gela bera; kutxa bitxi horiekin espazio eszenikoak ere hartu du kolore bat; edo beheko plastikoa; garaikidea baina aldi berean zaharkitua; eta Barbara Rassoren jantziek hartu duten dimentsioa oso polita izan da, erakargarria».

Obrak artean formarik ez zuela hartu zituen Gaztañagak taula zuzendaritza lanak bere gain. Orain, Lipusekin eta Penadosekin batera, taula gainean da, azken ukituak ematen, eskuak dar-dar egin dezatela esanez, ikus dadila ingi